

## Merkantzia Mercados



### Bultzada Europaren iparraldearekiko aitzindaritzari Impulso al liderazgo con el norte de Europa



Bilboko Portuaren kanpoko trafikoa %5 hazi da. Importazioei dagokie %67, eta esportazioei %33.

Europa atlantikoko herrialdeei dagokie Bilboko Portuko trafikoaren ia erdia, eta Bilboko Portuak aitzindari izaten segitzen du herrialde haietako trafikoan, zeina %8 hazi baita; termino absolutuetan, milioi bat tona, alegia. Bilboko Portuko Agintaritzaren helburua da hurrengo urteetan Europaren iparraldeko herrialdeekiko trafikoa bultzatzen jarraitza, eta orain errepeidez garraiatzen diren eta Bilboko zerbitzuak modu lehiakorrean erabil ditzaketen merkantziak erakartzea.

Trafiko totalari begiratuta, Errusia eta Erresuma Batua dira nagusi; karga lehorriari dagokionez, aldiz, Erresuma Batua eta Belgika. Estonia eta Belgika izan dira herrialde dinamikoenak.



El tráfico exterior del Puerto de Bilbao ha crecido un 5%. El 67% corresponde a importaciones y el 33% a exportaciones.

Los países de la Europa Atlántica acaparan cerca de la mitad del tráfico y el Puerto de Bilbao sigue manteniendo su liderazgo con esta zona, que crece el 8% y que en términos absolutos representa un incremento de casi un millón de toneladas. El objetivo de la Autoridad Portuaria es seguir impulsando, en los próximos años, el tráfico con los países del norte y atraer mercancías que ahora se transportan por carretera y son susceptibles de utilizar los servicios de Bilbao de manera competitiva.

En la zona, mantienen su hegemonía Rusia y Reino Unido en tráfico total, y el Reino Unido y Bélgica en la carga seca. Los países más dinámicos han sido Estonia y Bélgica.



## Ameriketako kontinentea, bigarren merkatu handia El continente americano, el segundo gran mercado



Ipar Amerikarekiko, eta, zehazki, Atlantikoko kostarekiko, trafikoa %12 (+ 500.000 tona) hazi da. Horrek Bilboko Portuko bigarren merkatu nagusi gisa berretsi du Ipar Amerika. Ondoren datozen Erdialdeko Amerika eta Hego Amerika atlantikoa.

Beraz, Ameriketako kontinenteari trafikoen %32 dagokio. Estatu Batuen trafikoa handitu da gehiena: hirugarren postuan daude trafiko totalari dagokionez, eta, laugarrenean, karga lehorriari dagokionez.

Nabarmentzekoa da, bestalde, Afrika mediterraneoarekiko trafikoaren hazkundeak: milioi-erdi tona handitu da. Algeria eta Egipto dira liderrak, petrolio gordinaren importazioengatik eta produktu siderurgikoen esportazioengatik, hurrenez hurren.

Asia pazifikoa da beste merkatu dinamiko aipagarri bat (+%10). Txina dago Asiako herrialdeen buruan; %15 handitu da produktu siderurgikoen esportazioei esker.



Norteamérica, y más concretamente la costa atlántica, aumenta un 12% (+ 500.000 toneladas), lo que reafirma como el segundo mercado del Puerto de Bilbao, seguido de Centroamérica y América Atlántico Sur.

El continente americano representa el 32% de los tráficos y Estados Unidos, el segundo país que más crece, ocupa ya el tercer lugar en el tráfico total y el cuarto en carga seca.

Destaca, asimismo, el crecimiento de África Mediterránea, cuyos tráficos también se incrementan en medio millón de toneladas. Argelia, por las importaciones de crudo de petróleo y las exportaciones de siderúrgicos, y Egipto, por el crudo, lideran esta zona.

Otro mercado dinámico es Asia Pacífico (+10%), con China a la cabeza, que crece el 15%, debido a las importaciones de productos siderúrgicos.